


noaia

**Militarren
ezusteko bisita**

**ELA gaixotasuna
dutenen alde agertu
dira udal ordezkariak**

**Larunbat honetan,
Aginagako Eskola
Txikiaren eguna**



Txinan da lanean Praisku Aranburu

**“Gustura nago herrialde
handi bezain harrigarri honetan”**



Santu guztien eguna

Erramuak, zentruak eta landaretan
aukera zabala hemen aurkituko duzu.

Egun osoan zehar zabalik!

• San Esteban auzoa ☎ 943 362 255



Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albistea iruditan

Militar espainiarren ezusteko bisita

Militar espainiarren hiru konboi ikusi zituzten urriaren 15ean asteazkena, eguerdi partean Usurbilen. Zehazkiago esanda, Atxegaldetik gora, Udarregi ikastola zeharkatuz, Arratzain aldera zihoazela ikusi ahal izan zituzten konboiak, hainbat herriarrek. 12:30ak aldera izan zen, hain zuzen ikasleak ikastolatik ateratzen ari ziren unean.

Ez da lehen aldia. Antzekorik eman da beste urte batzuetan ere. Baina errepikatu den egoera izanik ere, bat ez da horrelako "ikuskitzuna" oihitzen. Ibilgailuak bezain arrotzak direlako akaso ibilgailuetan dabilzan gizon armatu uniformedunak.



Atxegalde inguruan, Udarregi ikastola ondoko errepidean egina dago argazkia.

Laburrean

Seaskaren aldeko afaria

Zuberoa aldera joango da usurbildar talde bat, Iparraldeko Seaska ikastolen aldeko elkartasun afarira. Afaria, larunbat honetan egingo da. Otorduan handik ateratako laguntza Seaskako Integrazio Batzordera bideratuko baita. Animatzen dena bertaratu dadila.

1952koen kinto bazkaria

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria azaroaren 30ean, 14:30etan Patri jatetxean. Menua 35 euro. Izen emateko deitu 943 361 380 telefono zenbakira, azaroaren 19a asteazkena baino lehen.

1973ko kintoen bazkaria

Iritsi da eguna. Aurreko asteetan iragarri izan dugun moduan, asteburu honetan ospatuko dute kinto afaria. Hamaiketako egiteko batuko dira eguerdiko 12:00etan Bordatxon. Eta ondoren, Atxegara joko dute. Bazkaria 15:00etan hasiko da.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubidea.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Arantxa Zulaika,
publizitatea@noaqua.com
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noaqua.com:

Imanol Ubidea, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde,
Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Harresiz bestaldekoa... urrunegi

Inor ba al da inguruotan ez dakienik zein den ebolaz kutsaturiko erizain espainiarra, ospitaleko ze gelan dagoen, bere izena, bere aurpegia, NAN zenbakia, ze kaletan bizi den, bere etxe atariko zenbakia, solairua, bikote lagunik ba ote duen, zakurrari zer gertatu zaion...

Ez dakit harro samar sentitzekoa ote den, kasu honek azalerazi duen guztia. Ikargarria aparteko komentariorik merezi ez duten agintarien jarrera. Gaixoa, errurik gabe seinalatua. Sortu den

alarma giroa. Beste behin, “beldurraren propagandak” duen eraginkortasuna. Ba al da beldurtzea baino ezer horberik norbait esaneko bihurtzeko?

Hedabideak, zirko handian bihurtu den erizainaren etxe atarian. Esan gabe esan digute; bai aire, ur edo elikagaien bidez ez dela transmititzen ebola. Baina aldi berean, esan gabe esan digute; Madrilgo ez dakit zer kaleko 35. ataria “zero gunea” da. Kontuz. Kontrola dezatela, “fumigatu” dezatela, zero gunee hori han-

ditu ez dadin.

Horrela gabiltzala, badirudi behatzak gurutzatu beharrean gaudela, inguru hurbilean halako egoerarik ez delako suertatu momentuz. Eta egoeraz ari naizenean ez naiz ari gaixotasun batez kutsatzeaz soilik. Gertatuko balitz... Ez dakit nik nola erreakzionatuko nuen-genuen. Hipotesiokin bueltaka nabil, kalean ebola zuten zenbait lagun Afrikatik nola atera zituzten entzuten ari naizenean. Ebolak han duela jatorria eta

han utzi behar zirela uste du batek baino gehiagok. Harresiz bestalde, harresiaren alde honetan bizi garenok bestaldera begira jarrai dezagun?. Eztabaida horretan murgilduak gauden artean, “han” (ez baitakit, ze herritan, ze kaletan, ze etxe atarietan) milaka lagun hiltzen gaixotasun beragatik. Eta haiei ezin diegu aurpegirik jarri. Ez dute izenik, helbiderik, ez dugu haien mediku “partearik”... Horiek “harresiz” bestaldeko kontuak dira eta... Axola al digu ba?

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

Ika-mika

Espainiar ejertzittoa ez da ongi etorria

Inolako jakinarazpenik gabe Espainiako Ejertzittoa Usurbilen izan da. Usurbilgo EHBildutik probokazioztat jotzen dugu Espainiar Ejertzittoa Usurbilera etorri izana eta herrian ez dela ongi etorria adierazi nahi dugu.

Urriaren 15eko eguerdian (12:30ak inguruan) Atxegaldetik barrena Udarregi ikastola aurretik pasa ziren eta jarraian, Arratzain aldera joan ziren. Bertan ziren herritarren bidez jakin genuen 2 kamioi eta auto batez osatutako konboia pasa zela bertatik.

Oraingoz Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioaren aldetik inolako informazio edo jakinarazpenik ez du jaso Udalak.

Espainiar Ejertzittoa gerra-makineria eta armak erabiltzen ditu. EHBildutik hauek egun bizi dugun egoera politikoan lekurik ez dutela adierazi nahi dugu; batetik biolentzia-adierazpen guztiak desagertu behar dutelako eta bestetik Euskal Herriaren desmilitarizaziorantz pausoak eman behar direlako.

Usurbilgo EHBildutik Espainiako Gobernuari azaldu nahi diogu herri honek ez duela ezertarako bere ejertzittoa behar, ez gaituela ezertaz defenditzen, eta are gehiago, mehatxua bezala hartzen dugula, eta horren ondorioz, bere indar militarrek Euskal Herriatik ateratzeko eskatzen diogu. Gatazka gainditzeko une historikoa bizi dugun honetan militarrek halako erakustaldia egitea probokazio hutsa izateaz gainera, bake eta normalizazio

prozesuaren kalterako izan daitekeela uste dugu. Era berean, Euskal Herriko izpiritu eta aldarrikapen antimilitarista aldarrikatu nahi dugu, insumisio mugimenduek eta kontzientzia eragozpenaren aldarriak gogoan izanda.

Ejertzito Espainiaren maniobrarik ez!

Ez Usurbilen, ez Euskal Herrian ere!

Usurbilgo EH Bildu

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 31. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 27.

Udal ordezkariak blai, ELA gaixotasuna dutenen alde

Nork ez ditu ikusi sarean edo telebistan, pertsonaia ezagun zein ezezagunak, izotzez beteriko baldeka ura burutik behera botatzen? Uda honetan, mundu mailan ezaguna egin den ELA gaixotasuna dutenen aldeko elkartasun kanpainaz ari gara. Eki-mena Usurbila heldu zen aurreko astean, Lizaso sendiaren eskutik. Lizasotarrek erronka jarri zieten udal ordezkari-ek, kanpainarekin bat egin zezaten. Udalbatzak erronkari heldu eta blai amaitu zuten udaletxe aurreko plazan, urriaren 14rako deitua zegoen ezohiko osoko bilkura bukatu ostean.

Baldeka ura botatzen hasi aurretik, udal ordezkariak ongi azaldu zuten moduan, ekimena ez da noski blai amaitzera mugatzen. Garrantzitsuena, ELA gaixotasuna dutenen aldeko laguntza ekonomikoa ematea baita. Udalak 500 euroko ekarpena egin du. Horrez gain, zinegotzi bakoitzak ere bere ekarpen ekonomikoa egin du.

Eurak bezala, baldeka urez busti edo



Blai amaitu zuten kide denek. Ikus noaua.com orrian zintzilikatu genuen bideoa.

ez, kanpaina diruz lagundu dezakegu. Ekarpentak honako kontu zenbakian egin behar dira: AdELA Euskal Herria:

ES74 3035 0060 44 0600080648 (Laboral Kutxa).

Informazio gehiago: adelauskalherria.com

Eta honez gero jakingo duzuen moduan, etenik ez duen kate bat da elkartasun kanpaina hau. Ekimenarekin bat egiten dutenek, erronka unean bertan,

beste hainbat lagun animatzen dituzte parte hartzera.

Udalaren izendapenak

Adi, honako hauek izendatu baititu Usurbilgo Usurbilgo Udalak, ELA gaixotasuna dutenen alde bustitzeko; Usurbilgo udal langileak, Udarregi Ikastola eta Lasarte-Oriako Udala. Ia animatzen diren.

PSE-EE, Bilduk aurkezturiko garapen agentzia proposamenaren aurka

Kritiko agertu dira Buruntzaldeko udal ordezkari sozialistak, aurreko astean bailarako bost alkateek Eskualderako Garapen Agentzia Integrala martxan jartzeko aurkezturiko proposamenaren aurrean. Bilduk bere interesen onurarako diseinaturiko txosna gisa definitzen dute egitasmoa, Andoain, Hernani, Lasarte, Urnieta eta Usurbilgo PSE-EEko udal ordezkariak.

Gai honetan bi urteko lanketa egin den arren, Bildu orain presaka dabilela diote sozialistek, euren ustez zortzi hilabete barru udal hauteskundeak izango direlako. Engainutzat jotzen dute egin duten planteamendua, eta proposamen hau gauzatzeak ekarriko dituen ondorioez ohartarazten dute.

Eskualdeko langabezia-tasa altuei eta hainbat herritar bizitzen ari diren egoera pertsonal larriari aurre egiteko neurriak hartu behar direla diote. Baina hau egin beharrak ez du esan nahi PSE-EEkoen esanetan, edozein proposamen onartzeko prest daudenik. Sei udalerriek elkar-



Prentsaurrekoan Ricardo Crespo udal zinegotziak hartu zuen parte (argazkiaren erdian ageri da).

lanean aritu beharra dute sozialisten ustez, udalerri bakar bat ere kanpoan utzi gabe. Garapen agentziak edozein interes alderdikoetik kanpo eta alderdi politiko guztiek ordezkatuak egon behar duela diote sozialistek. Eskualdeko garapen agentzia martxan jartzeko Mankomuni-

tatea sortzea proposatzen du Buruntzaldeko PSE-EEk. Balizko Mankomunitate horretan, idazkari eta diruzain karguak udal langileen esku geratuko lirateke, eta ez euren esanetan, alderdi zehatz bateko zinegotzien ardurapean, "kontrolik gabe, Bilduk egin asmo duen moduan".

Erraldoi eta buruhandi festa azaroaren lehenean, Artisautza Azoka egunean

Azaroaren 1erako Aitzaga Elkarteak antolatu duen XIX. Artisautza Azoka, gaztetxoek erraldoi eta buruhandi kalejira batek giroa du. Goizeko 11:30etan abiatuko da udaletxe aurretik eta giro eurtsurik ez bada, Kaxkoko buelta egingo dute. Txikien festa handia izango da, Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako kide gaztetxoek eramango baitituzte erraldoi eta buruhandiak.

Momentuz, kalejiran parte hartuko dutenak 3 erraldoi eta festetan ezagunak zaizkigun buruhandiak ditugu. Erraldoi txikiak izango dira, 3 metrokoak, haurrek eramango dituzte eta. Besteak beste, euskal mitologiako bi pertsonaia ikusiko ditugu herriko kaleetan dantzan; Tartalo eta Basandere. Buruhandiak, aipaturikoa, Santixabeletan haurren atzetik lasterka ibili ohi direnak; akerria, tximua, deabrua, sorgina, behia eta pailazoa.

Kalejira irekia izango da. Festara batu nahi duenak, batu dadila. "Guraso eta umeak animatu daitezela. Erraldoiekin batera, buruhandi festa bat nahi dugu. Umeak euren etxetik buruhandiak ekartzera deitzen ditugu, konpartsarekin batera ateratzeko. Animatu!", luzatu dute gonbita Usurbilgo erraldoi eta buruhandi konpartsako kide gaztetxoek.

Herriz herri

Artisautza Azokarako prestatzen ari dira orain, udan festarik festa ibili ostean. "Hernaniko Ostargi taldekoei Errenteriara eta Azpeitiara joan ginen. Azpeitian erraldoi lehiaketan parte hartu genuen lehen aldiz, eta taldekako dantzan Txantreakoei ber-



Argazkian diren lau gaztetxoak duela hiru urte hasi ziren erraldoien konpartsan partehartzeko.

dindu genuen, Euskal Herriko erraldoi talde onenarekin", konpartsa kide gaztetxoek NOAUA!ri berri eman diotenez.

Hernaniko Ostargikoekin lotura estua dute, erraldoi bat dute bertan. "Urtero hona etortzen dira. Han ere erraldoi txiki bat dugu, aurtan eginkoa, Aker izena du", konpartsa kideen esanetan. Erraldoiak lantzen ere aritzen dira argi denez, baita koreografiak ere. Ibilbide oparoa, 3 urte jardunean daramatzan konpartsarena.

Aitor Aiestaran gaztearen ekimenez sortu zen taldea, duela bi urteko Inauteri Festaren bueltan. Hitzordu hartan parte hartu ostetik, taldean jarraitzea erabaki zuten. Azken urteotako mozorro festan, edota jaietan ere ikusi ditugu, kalean gora eta behera dantzan. Koreografia batzuk irakatsi dizkiete, baina dantza berrien sortze lanetan aritu da taldea. "Bi behintzat erakutsi zizkiguten eta hortik aurrerakoak gu joan gara sortzen.

ERRALDOIEN KONPARTSA "Umeak euren etxetik buruhandiak ekartzera deitzen ditugu, konpartsarekin batera ateratzeko"

Ez dira lehenengoan ateratzen, agian hamar aldiz entseatu behar ditugu ondo ateratzeko. Dagoeneko jende guztiak ezagutzen ditu gure dantzak", konpartsa kideen esanetan.

Artisautza Azokarekin amaituko dute konpartsakoek aurtengo jarduna. 2015ean irtengo dira berriz kalera, Usurbilgo Inauteri Festan parte hartzera.

Kalejirara batzeko deia

Azaroak 1, larunbata. 11:30etan, udaletxe aurretik. Ibilbidea: udaletxeko plaza, Kale Nagusia, Zubiaurrenea, Artzabal, Txapeldun taberna aurrea, Mikel Laboa plaza ingurua, frontoia eta udaletxea.

Antolatzailea: Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.

30 bat postu, XIX. Artisautza Azokan

Ukenduak, goxogintza, esnekiak, bitxiak, otarrak, eskultura-pintura... Denetariko artisau postuak bisitatu, eta erosketaren bat egiteko aukera izango da, azaroko lehen egunean frontoian.

Ixteko arriskuan den Aitzaga Elkartaren eskutik aurtan ere, Usurbilen errotua dagoen ekimena. "Nahiz eta lehen ere sei urtez elkarte itxi ziguten, azokak ez du etenik izan eta urtero hor izan dugu guztion ikusgarri. Aurtan ere erasoak ez du etenik eta Hego Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat elkarte bezalaxe, Aitzagak ere Madrilgo erabakia- ren zain jarraitzen du. Egoera erosoak ez izan arren, azokarekin jarraitzea erabaki dugu", Aitzaga Elkartetik berri eman dutenez.

Eguna: azaroak 1, larunbata.

Orduetgia: 11:00etatik aurrera.

Tokia: frontoia.

Antolatzailea: Aitzaga Elkartea.

Sintonizatu zuen telebista, 4G dator eta

Lurreko telebista digitalerako jauzia eman genuenean iragarri zigun aldizkari honetan bertan, orain datorkigun aldaketa. 4G delako teknologia berria gu guztion etxeetara sartuko da urtarila hasieran. Internetarako konexio azkarragoa dakar sistema berriak. Datorren aldaketarako prestatu beharra dago. Zenbait moldaketa egin beharko dira, datorren urtarrilaren 1etik aurrera ere telebista ikusten jarraitu nahi badugu. Herri honetako hainbat antena instalakuntza ezinhobeto ezagutzen dituen Patri Alda teknikariak dakartza zehaztasun gehiago.

Zer aldaketa dator?

Patri Alda: 4G teknologia dator. Orain arte, telebista kateak okupatzen zuten frekuentzian telefonía mugikorrek zerbiztuak sartuko dira. Telebista kateak frekuentziaz aldatuko dira eta honenbestez, berriz sintonizatu beharko dira.

Igande honetan bertan nabaritutako ditugu lehen aldaketak?

Telebista normal ikusten jarraitu arren, aldaketa batzuk nabaritutako dira. Telebista kateak lekuz aldatuko dira. Urriaren 26an telebista piztean, telebista kate bat ikusten zen lekuan beste bat ikusi dezakete herritarrek. Telebista kateak desordenatuta ageriko zaizkie. Telebista kontrolatzen badute, telebista kate guztiak ezabatu eta berriz ere telebista kateak automatikoki bilatu ditzakete. Bestela, utzi dagoen bezala eta telebista kateak berriz sintonizatzeko profesional batekin hartu ematen jar daitezela.

Zer hobekuntza dakartza 4G teknologiak?

Internet zerbitzu azkarragoa. Gainera, Kaxkotik urrun dauden lekuetan, orain arte Inter-



Zenbait moldaketa egin beharko dira antenetan.

PATRI ALDA

“Orain arte, telebista kateak okupatzen zuten frekuentzian telefonía mugikorrek zerbiztuak sartuko dira. Telebista kateak frekuentziaz aldatuko dira eta honenbestez, berriz sintonizatu beharko dira”

netera konektatzeko arazoak zeuden lekuetan, aldaketa hau askoz hoberako izango dela diote. Mugikorretik seinalea askoz hobeto hartuko da.

Datorren aldaketara egokitzeke zer egin behar da?

Antenetan zenbait moldaketa egin beharko dira. Kasu batzuetan, amplifikadore berriak jarri behar dira. Badira ere egoera onean egon daitezkeen amplifikadoreak. Adibidez, 8 urtetik hona egindako obra berri bat bada, lehengo amplifikadoreak erabili ditzakete. Bestela aldatu. Bestalde, antenarik ez duten etxebizitzetan, telebistako seinalea zuntz optiko bidez jasotzen dutenek ere ez dute obrarik egin beharko.

Onena beraz, gremioekin ahalik eta lasterren kontaktuan jartzea? Bai. Lan handia izango dugu. Garai batean telebista analogikotik Lurreko Telebista Digitale-rako trantsizioa 5 urteetan egin

zen, 2005etik 2010era. Orain berriz, 3 hilabeteetan egin behar da lan guztia. Europako zuzentzaren bat da eta bete behar da. Frantzia duela 3 urte kendu zituzten amplifikadore horiek eta denbora dezente egon da egokitzapen hau egiteko. Hemen 3 hilabeteetan egin beharko da lan guztia, planifikazio kaxkar baten ondorioz.

“ETB ikusteko arazoa zutenentzat hoberako izango da”

4G teknologia berriak, arazorik ekar dezake?

Teilatuko antenetako kableak erdi apurtuak badaude adibidez bai, seinalea galtzeko arriskua egongo da. Bestalde, telefoniako errepikagailu baten ondoan egoteak arazoak ekar ditzake. Usurbilen halako bi daude; bat Urdaigian, bestea Zubietan. Kaxkoan ez dagoenez, herri erdigunean behintzat arazorik ez luke egon behar. Telefono mugikorraren seinalea oso handia den lekuetan, telebista seinalearekin arazoak egon daitezke.

Kexak badira, zonalderen batzuetan ikusten ez dela ETB?

Hiru bat urte badira. Agentzia teknikoen arabera, Burdeosetik datorren interferentzia baten eraginez. Bitxia da Usurbilen markaren ba-

teko telebistek arazorik eman izan dute, Frantziatik zetorren seinale horrengatik. Datorren aldaketa hau, ETB ikusteko arazoa dutenen hoberako izango da.

Kontuan izan

beharreko datak

Urriak 26, igandea: frekuentziaz aldatuko dira telebista kateak. Telebista kateak desordenatu daitezke. Askok, telebista kate bakoitza bitan ikusi ahaliko duzue. Telebista kateak ezabatu eta berriz sintonizatzeko aukera duzue.

Urtarrilaren 1era arte: etxeetako instalakuntzak 4G teknologia berrirako prestatzeko tartea.

2015eko urtarila: 4G teknologia berrira igaroko gara.

Zubietako hondakinak tratatzeko proiektua, baimenaren zain

Aurreikusitako epeak betetzen badira, 2015. urte amaierarako martxan egongo omen da errauste planta eraiki behar zuten gunean altxako den hondakinen tratamendu mekaniko-biologikoko planta. Hala adierazi zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak (GHK) aste hasieran, Foru Aldundiko ordezkariekin batera Gasteizen.

Ziurtatzen jo zuten, Jaurilaritzaren Ingurumen Baimen Bateratua lortuko dutela, baina atzeratu litekeela diote, “interes politiko eta elektoralak direla medio”.

Materia inertizatuarentzako Zestoako gordetegiarekin batera, hondakinen zikloa itxeko funtsezkoa eta hondakinen arazoari erantzun integrala eta iraunkorra emango dion planta izango da Zubietakoa, GHK-ren esanetan.

Lekukoa, herritarren eskuetan

Mikel Laboa plazara heldu zenetik ikusmina sortu zuen. Gertutik ikusi eta ukitu ahal izan zuten herritarrek. Eskuz esku ibili zen, frontoi atzean batutako jendetza artean. Ezin esan, harrera hotza izan zuenik, ez zen gutxiagorako eta. Heldu da Kilometroak 2015 antolatzeke, Udarregi Ikastolak urriaren 5ean Orion hartutako lekukoa. Usurbilen da jada. Herriak du lekukoa, aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan ospaturiko ekitaldiaz geroztik.



Kilometroak-en lekukoa gertutik ikusi eta ukitzeko aukera izan zuten herritarrek.

Ongi etorri beroa jaso zuen. Udarregi Ikastolako ikasleak kantari eta musika instrumentu ezberdinak jotzen ikusi genituen. Abesten baita, ikastolako zuzendari eta lehendakaria. Pozik asko eskaini zieten lekukoa herrita-

rei. Lekukoa eskutan, Usurbil Kilometroak 2015 ekimena antolatzeke prest da! Orain bai, datorren urteko urriaren 4rako atzera kontua hasi da. “Animo, lana asko dago egiteko baina seguru nago erronka hau irabazi eta ederki gaindi-

tuko dugula”, zioen Mertxe Aizpurua alkateak.

Azaroaren 29an, aurkezpen ekitaldia

Urriaren 5ean, Orion jaso zuen lekukoa herri honek eta Uda-

rregi Ikastolak. Lekukoa herriari eskaini zitzaion joan den ostiralean.

Orain, Kilometroak 15en aurkezpen ekitaldia dator. Eguna finkatua du jada antolakuntzak; azaroaren 29a. Hilabete eskas barru beraz.

“Memoria eta erreparazioa Egunkariarentzat”

Egunkaria auzia artxibatu dute azkenean, amaitu da 11 urteko amets gaiztoa. “Egun handia da guretzat, gure bizitza pertsonalarentzat, zama handia kendu dugu gaitetik”, zioen Joan Mari Torrealda herritarra, Egunkariako auzi ekonomikoa behin betiko artxibatu zela jakin eta egun gutxira, urriaren 17an Andoaingo Martin Ugalde kultur parkean ospatu zen eskertza ekitaldian.

Auzipetu ohien izenean, eskerrak helarazi nahi izan zizkien, 11 urteotan babesa, elkartasuna, maitasuna adierazi duten guztiei. Pozik eta esker onez agertu ziren hedabideen aurrera. Baina Torrealdaik zioen moduan, “hale-re ez dugu irabazi”. Eragindako kalteen ordainik ez dagoela nabarmendu zuen eta euskarari, euskalgintzari, euskal gizarte-ari eginiko eraso bortitzaren aurrean inork barkamenik ere ez

duela eskatu gaineratu zuen.

Egunkariarentzat “Memoria bizi eta aktiboa” eta erreparazioa eskatu zuen, “memoria kolektiboak ondo gordeta mantentzea, XXI. mende hasieran euskarak eta euskalgintzak jasandako eraso bortitza”.

Eskerrak emanez eta Egunkaria libre dela adieraziz, ekitaldira bertaturiko txalo zaparrada batekin amaitu zen eskertza ekitaldia. Hitzordura, euskalgintzako hainbat aur-



“Zama handia kendu dugu gaitetik”, adierazi zuen Joan Mari Torrealdaik.

pegi ezagun bertaratu ziren, baita Ezker Abertzaleko edota EAJ-PNVko ordezkariak ere.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Pinturas Ion
KANPOALDEKO FATXADAK ETA
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK
690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

“Paraje politak ikusi genituen Aralarren”

Ibilbide polita izan zen Aralarra, paraje politak ikusi genituen eta oso ondo pasagenuen lagun artean, esfortzuak merezi izan zuen baina okerrera hotz ikaragarria egin zuela.

Bidean esan ziguten han atzean eta goian ikusten zen tontorra zela Ttutture mendia (1281 m), pentsatzen genuen gezurra zela baina azkenean egia zen. Lagun batzuek beldurra pasa zuten eta lagunei eta irakasleei esker, gora igotzea lortu zuten. Pixka bat arrisku-tsua zen eta igotzen ari ginela lanbroa sartu zitzaigun eta ezin izan genituen ikusi beheko herriak.

Goian ginela poztasun handia sentitu genuen, argazki batzuk atera eta ondoren, gelan egindako bertsoak postontzian sartu genituen. Punta nahiko txikia zelako beldur ginen ea eroriko ote ginen, laster goitik behera, harri tartean abiatu ginen.

Bidean antzinako artzainek



“Bidean antzinako artzainek egindako arkuak ikusi genituen eta ardiak, zaldiak, behiak, putreak... Animalia ugari ere bai”.

egindako arkuak ikusi genituen eta animalia ugari ere bai: ardiak, zaldiak, behiak, putreak, ... Lehen gizakiak bezala, bi harri kolpatuz punta ateratzen ibili ginen jende asko.

Asko gustatu zitzaiguna “sardinen jolasa” izan zen, denak eskua emanda jarri eta pertsona bat oinutsik salto egin eta gure beso artetik gora botatz, saltoka batetik bestera pasatzen zen.

Arratsaldean, zelaian jolas eta errelebo lasterketa batzuek egin genituen, baina beti Soinketako irakasleak irabazten zuen.

Nahiz eta bost bat ordu ibili, ibilbidea motza egin zitzaigun, denbora guztian lagunekin hitz egiten eta jolasean ibili ginelako.

Argazki ederrak atera genituen, Naturarekin bat bezala sentitu ginen. Garai bateko bi-

zimodua ezagutzeko, ingurune ederrak ikusteko, esperientzia berriak bizitzeko eta baita gure artean harremanak sendotzeko ere balio izan zaigu.

Mikelek lagundu zigun mendira igotzen, istorioak kontatzen eta esplikazioak ematen, hemendik eskerrak eman nahi dizkiogu denon partetik.

DBH 1eko ikasleak



Aurreko igandeko argazkia da hauze, email bidez jaso duguna: “guraso eta ume talde bat bildu gara mendi irteera egiteko asmoz. Andatzen barrena ibili gara denok elkarrekin giro ederrean. Hilean behin egingo den mendi irteerara jendea animatu dadin bidaltzen dizuegu argazki hau”. Beraz, animatzen bazarete, eurekin jarri harremanetan.

Miriam Mendoza, liburutegian

Ikasturte berrirako lehen ipuin kontaketa saioa ostegun honetan, urriaren 23an, arratsaldeko 18:00etan Sutegi udal liburutegian. Miriam Mendoza arituko da kontu-kontari, 6 urtetik gorakoei zuzendua egongo den saioan.



Ostegun honetan, urriak 23, 18:00etan Sutegin. 6 urtetik gorakoei zuzendua.

“Apiriletik Shangain bizi naiz eta



Danobat kooperatibarekin joan da lanera Praisku Aranburu.

NOAUA! Nola iristen da usurbildar gazte bat Txinara, zertara eta lanera?

Praisku Aranburu. Horixe bera galdetzen diot nere buruari ere. Orain dela bost urte karre-
ra bukatu nuenean nork esango ote zidan Txinan bizitzen bukatuko nuenik! Baina auke-
ra ona egin nuelakoan nago eta gustura nago herrialde handi bezain harrigarri honetan.

Euskal Herriko enpresa baten-tzat ari zara komertzial lanetan. Aurretik beste herrialde batzuetan izan al zara? Edo enpresa honen egin duzun lehen irteera al da hau?

Halaxe da, Danobat kooperatiban hasi nintzen lanean komertzial bezala karrera bukatu ondoren, proiektua Alemanian egin nuen Danobaten fabrikazio planta batean eta handik zuzenean lanean hasi nintzen Frantzia, Belgika eta Turkia herrialdeetan, komertzial gisa. Bi-

PRAISKU ARANBURU

“Danobat enpresaren delegazioan 30 txinatar ditugu eta haiekin ibiltzen naiz Txina osoan”

daia asko egin nituen herrialde hauetara eta orain dela lau urte beste herrialdeak utzi eta Txinara etortzea eskaini zidaten. Txinaren erosteko ahalmena eta genuen lan karga tarteko, hiru urte pasa ditut Txinara bidaiatzen ia hilabetero. Orain berriz, apiriletik Shangain bizi naiz eta hasiera batean hiru urterako etorri naiz.

Zertan datza zure lana? Hemengo produktuak han saltzera akaso?

Danobaten, hainbat sektore-tako piezak egiteko makina ezberdinak fabrikatzen ditugu, Euskal Herrian fabrikatzen ditugu makina hauek eta mundu

osoan saldu. Niri dagokidan lana Txinan makina hauek saltzea da. Danobaten txinako delegazioan 30 txinatar ditugu eta haiekin ibiltzen naiz Txina osoan barrena bidaiatzen bezeroak bisitatuz eta gure produktua azalduz, defendituz, negoziatuz eta azkenik ahal bada salduz.

Ikusirik Txina zein herrialde handia den (Europa osoa kabitzen da Txina barruan), bidaiatzeko hegazkina hartzea oso ohikoa da hemen. Alde horretatik denbora asko galtzen da bezeroak bisitatzeko joan etorrian. Gainontzean, emaitza oso onak ditugu Txinan eta ea horrela jarraitzen duen.



“Hiru urte pasa ditut Txinara bidaiatzen ia hilabetero. Orain berriz, apiriletik Shangain bizi naiz eta hiru urterako etorri naiz”.

hiru urterako etorri naiz lanera”



“Negoziaketetan oso zorrotzak dira txinatarrak”, hala dio Praisku Aranburuk (argazkian, eskubitara).

NOAUA! Hangoekin batera lan egitea tokatuko zaizu. Nolakoak dira txinatarrak? Zorrotzak al dira negozioetarako?

Praisku Aranburu. Negoziaketetan diren bezain zorrotzak izango balira lanean eta egunerokoan, Txinak dagoeneko mundu osoa jan zuen! Negoziatzen oso zorrotzak dira eta askotan gauza asko ezin dituzu ulertu, baina bestalde, txinatarrak oso utziak eta berekoiak dira. Ez dute lana ondo eta txukun egiteko inongo inententziorik, ahal duten azkarren eta traketsen egingo dute eta ahal dela inongo ardurarik hartu gabe. Txinatarrak oso langileak diren ustea oso zabaldua dago mundu osoan, ba juxtu kontrakoa esango nuke, eta lan asko egiten badute dirua irabazteko eta gastatzeko duten obsesioagatik da.

Eta tratu pertsonalean nolakoak dira, zaila da laguingiro bat osatzeari Txinaren moduko herrialde batean? Lagun txinatarrak egin dituzu honez gero?

Alde onak ere badituzte, nire lankideekin oso harreman ona

BISITATU BEHARREKOA

“Txina bezalako herrialde bat bisitatu beharra dagoela uste dut, hemengo jendea, ohiturak, parajeak, hiriak,... ezagutu beharra daude eta nahiz eta mila aldiz kontatu hemengo abenturak, ezin dira ulertu ez badituzu bizitzen”

dut eta jende oso alaia eta irekia da. Lanetik kanpo zaila da lagun txinatarrak egitea, oso bizitza ezberdina dute gurearekin alderatuta, Shanghain atzeritarrok ibiltzen garen tokietan normalean ez dira txinatarrak ibiltzen, beraz harreman handirik ez daukagu beraiekin.

Han lanean zaudenetik, Usurbil aldera zenbatero etortzen zara. Zaila izango da maiz hurbiltzea etxera, distantziak handiak baitira, ezta?

Ba apiriletik bi alditan izan naiz Usurbilen, bata lagun baten ezkontzan eta bestea bi-

satua berritzeko joan nintzen. Orain Gabonak arte hemen egongo naiz eta datozen urteetan pentsatzen dut urtean bi edo hiru bidaia egingo ditudala etxera. Bidaia luzea da bai, hegazkinez 14 ordu dira eta eskalak gehituta bidaia osoa 18 ordu dira. Baina etxera joateko denean berdin dio zenbat ordu diren, etxeak eta lagunak ikusteko gogoagatik bidaia motza iruditzen zaizu.

Eta etxeak edo lagunak, joan al zaizkizu bisitan?

Ba etxeak eta Usurbilgo lagunak ez dira oraindik etorri, beste lagun batzuen bisita izan dut baina etorriko dira, badago denbora.

Uste dut Txina bezalako herrialde bat bisitatu beharra dagoela, hemengo jendea, ohiturak, parajeak, hiriak,... Ezagutu beharra daude eta nahiz eta mila aldiz kontatu hemengo abenturak, ezin dira ulertu ez badituzu bizitzen. Edonor animatuko nuke Txinara bidaiatzera, momentu oro gauza guztiekin harrituta geratuko litzateke.

“Euskal Herrian bizi kalitatea oso altua da”

Ze ekarriko zenuke Txinatik Usurbil aldera? Eta zer eraman Usurbildik Txina aldera?

Praisku Aranburu. Ba ezer gutxi ekarriko nuke, uste dut gure bizi kalitatea Usurbilen eta Euskal Herrian oso altua dela, ez gara ohartzen baina guretzat gauza normalak direnak, hemen falta dira edo ezinezkoak dira lortzen: Aire garbia, kutsadura asko dago eta askotan egunak laino grisaren artean pasatzen ditugu; trafikoa, hemen jende askok bi ordu pasatzen ditu lanera iristen eta beste bi etxera bueltatzen; mendia eta itsasoa horren gertu edukitzea; Euskal Herrian ondo jateko dugun ohitura, hemengo jana ona da baina etxekoa bezalakoa inon ez!



Gabonetan etorriko da bisitan.

NOAUA!ren Kulturaldia ate joka



Xabier Lizaso eta Andoni Egaña Sutegin izan ziren aurreko igandean.

Berrogei lagun inguru bildu zituen aurreko igandean, NOAUA! Kultur Elkartek Sute-
gin antolaturiko "Garai hura gara" bertso
musikatuen saioak. Garai bateko konpositoreen
lana ekarri zuten gogora Andoni Egaña bertso-
tan, eta Xabier Lizaso pianojoleak.

Saio honen ostean, NOAUA!k antolaturiko
hurrengo hitzordua, datorren hileko Kultural-
dia izango da. Azaroko bigarren eta hirugarren
asteburuen bueltan programatu dugu aurtен-
gorako eskaintza. Zehaztasun guztiak, datorren
astekarian.

Gure Esku Dagoren mosaiko erraldoira joateko deia

Giza-katea izan zen ekainean, orain mosai-
ko erraldoi baten bidez, euskaldunon era-
bakitze eskubidea aldarrikatzeko hitzordua
finkatu du Gure Esku Dagok, azaroaren 8an,
11:00-13:00 artean, Donostiako Zurriola
hondartzan. 5.000 herritar bildu nahi dituz-
te. Mosaiko erraldoian parte hartzeko ordea
aurrez izena eman beharko da. Horretarako,
apuntatzeko mahaia jarriko dira datozen as-
teotan. Izena ematen duenak, trukean txar-
tel bat jasoko du. Txartel hori ondo gorde eta
azaroaren 8an Zurriolara eraman.

■ Urriak 24 ostirala: 19:00-21:00, Kaxkoan*.

■ Urriak 25 larunbata: 18:00-19:30, Agina-
gan, frontoi inguruan.

■ Urriak 26, igandea: 12:30-14:00, Kaxkoan*.

■ Azaroak 1 larunbata: 12:00-14:00, Kaxkoan*.

■ Azaroak 2 igandea: 12:00-14:00, Kaxkoan*.

Urriaren 25etik aurrera, Lizardi liburu den-
dan ere izena eman ahalko da.

Prezioa: 5 euro.

* Eguraldiaren arabera, Sutegi atarian edo
Mikel Laboa plazan jarriko dute mahaia.

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen
aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaUA.com-etik!

tren eta autobus



noaUA

ordutegia 14/15

Sexualitatea eta erotika solasaldia, gaztetxearen eskutik

Larunbat goiz honetan, 10:00etatik 14:00etara Oiardo Kiroldegiko tami gelan. Usurbilgo Gazte Asanbladak, Ernaik eta Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak antolaturiko solasaldian, "sexualitatearen adierazpenen inguruko gogoetak egingo dira. Ba al dago erotika femenino bat eta erotika maskulinoa? Nahiak, desirak, gogoak, sentipen eta sentsazio ezberdinei lotuak al gaude gizon-emakumeak? Zeri erantzuten dio? Gure izate sexualari ala agindu kulturalari? Elkar ulertzetik ba ote dugu?"

Gaztetxearen alde

Usurbilgo Gaztetxea eraisteko



Kaotiko azaroaren 22an arituko da Usurbilgo gaztetxean, Juanantzoneko okupak taldearekin batera.

arriskuan da. Horren aurrean ekimen zaparrada antolatu dute gaztetxeok, tartean urriaren 25eko hitzaldi-solasaldia. Baita ekimenok besteak beste, datozen astei begira:

- Azaroak 6: afari beganoa.
- Azaroak 22: "Ez dadila haria eten" gaia: Juanantzoneko okupak + Kaotiko.
- Abenduak 6: "Kaos y len-tejas" jaialdia.

Kaltetutako lurrak biziberritzeko

